

3. FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Teknologia eta berrikuntza aldetik, inbertsio eta ikerketa handia egin behar dugunez, beste erakunde eta elkarteekin aliantzak egitea ezinbestekoa egiten zaigu. Holoments software and hardware solutions enprekin kolaboratuko dugu, biok antzeko mekanismoak erabitzen ditugulako eta beraiek guk behar dugun produktua egiteko teknologia garatuta daukatelako. Ezaguna den enpresa batekin lan egiteak, bezeroengan konfiantza sorraraziko du eta garantia bat emango diegula ikus dezakete.

Gure bezeroei ikastaroak emateaz arduratzen den pertsonak enpresa bat du, eta enpresa horrekin lankidetzan arituko gara eta honek gure produktua ezagutarazten lagunduko digu. Izan ere, kurtsuak ematen dituen enpresak bezero asko erakarriko dituzte deskontu onak jarriz.

Osakidetzarekin akordio bat egitea pentsatu dugu, haiek ez dute erabiliko baina mutuei eskaini ahal izango diete, uste badute gure produktua beharrezko dutela.. Hori horrela izanda, gure produktua bultzatzen lagunduko digute, behar dutenei gomendatuz.

Gainera horretaz gain, txipak, bozgorailua, prozesadorea, pultserak, kaxak, kableak, lehengaiak, lortzeko hainbat enprekin lan egingo dugu, hauek gure hornitzaileak izango direlarik.

Gure enpresan 4 bazkide izango gara:

- **Ekhi eta Iulia:** Bezero eta hornitzaileekin komunikatuko dena. Merkataritza saila.
- **Aimar:** Sare sozialak/ web orrialdeen kudeaketaren arduraduna; baita gure proiektuaren diseinatzailea. (*horretaz gain, beste pertsonala espezializaturen bat kontratatuko dugu makina eraikitzeko*) Ekoizpen saila eta merkataritza saila.
- **Izar:** Gure produktua saltzen dugun denden kontrola hartzen du. Merkataritza saila.
- **Eloise:** Kostuen eta gastuen administratzailea. Inbertsio eta finantzen saila eta giza baliabideen saila.